



## EUSKARA-IKASTAROEN DEIALDI OROKORRA

### 2018/2019 IKASTURTEA

Euskal Autonomia Erkidegoan diharduten Justizia Administrazioiko funtzionarioentzat prestatu den euskalduntze- eta alfabetatze-programaren helburua euskarazko hizkuntza-gaikuntza sustatzea eta bultzatzea da. Programa horren barruan, Lan eta Justizia Saileko **Justizia Administrazioiko Zuzendaritzak** honako eskaintza egingo du 2018/2019 ikasturterako, hizkuntza-normalkuntzari buruzko 174/2010 Dekretuari jarraiki.

Deialdi orokor honek 2018/2019 ikasturte osoa hartuko du. Azaroan deialdi osagarri bat egingo da, batez ere deialdi orokor honetan izena eman ezin izan dutenentzat, beti ere aurrekontu aurreikuspenen arabera.

Deialdi honetako euskara-ikastaroetan parte hartzen duten funtzionarioek honako **konpromisoak** hartu beharko dituzte:

- Ikastaroen aprobetxamendu egokia egitea.
- Urratsak gainditzeko ezarritako aldizkako ebaluazio-probak egitekoa.
- Hizkuntza-eskakizunak edo baliokideak egiaztatzeko azterketak egitekoa, dagokien urratsa lortzen dutenean.
- Euren organo judizialetan euskararen erabilera sustatzeko programetan parte hartzekoa.
- Beren kidegoari dagokion hizkuntza-eskakizuna edo horren baliokidea egiaztatu ostean, hizkuntzagatik berezitutako lanpostua eskuratzeko hurrengo lehiaketan parte hartzekoa eta lanpostu horietako bat aukeratzekoa. Aukeraketa hori egin ezean, euskara-ikastaroak egiteko eskaerei ezezkoa eman ahalko zaie.

### 1. NORENTZAT

Deialdi honetan kudeaketa, izapidetza, laguntza judizial eta auzitegiko mediku kidegoetako karrerako funtzionarioak, praktiketako funtzionarioak, lanpostu hutseko bitartekoak, errefortzuko bitartekoak eta ordezeko bitartekoak sartzen dira, **baldin eta izendapenerako aurreikusitako iraupena euskara ikastaroaren iraupen berekoa ala luzeagoa bada**. Euskara ikasteko baimenak C1 maila (egiaztatua ala ez) lortzean amaituko dira, salbu C1 ezarrita duten lanpostuetan (kudeatzaileak eta auzitegiko medikuak), kasu horietan euskara ikasten jarraitu ahal izango dute C1 egiaztatu arte.

Lanaldiaren laurden bat ala gutxiago murriztua duten pertsonak euskara klaseak lanorduetan eskatu ahal izango dituzte. Proporzio hori gainditzen dutenek lanorduetatik kanpo ikasi beharko dute euskara.



## 2. IKASTAROEN ESKAINTZA

### 2.1 BI ORDUKO IKASTAROAK

#### 2.1.1. Lanorduetan

Oro har, deialdian ezarritako lan-ordutegitik kanpo (ikus atal hau: 7. ORDUEN KONPENTSAZIOA) ez da beste ordutegirik onartuko. Lanorduetako ikastaroen ordutegia honakoa da:

Goizeko lan-ordutegia 8:00-10:00

Bi orduko ikastaroetako ikasleak, lanorduetan eta goizez, gehienez 20 minutu izango dituzte (8:00-10:20 oro har) euskaltegitik lantokira itzultzeko.

Arratsaldeko lan-ordutegia 15:00-17:00 (edo 15:30-17:30)

16:00-18:00 (edo 16:30-18:30)

#### 2.1.2. Lanorduz kanpo

Lanorduz kanpoko ikastaroak 17:00etatik aurrera hasten dira. Ikastaro hauek asteen gutxienez 8 eskola-orduko trinkotasuna izan behar dute ikasturte amaieran ordu konpentsaziorako aukera izatea nahi bada.

### 2.2. IKASTARO TRINKOAK

Ikastaro trinkoek (5 h egunean) lanaldi osoko **liberazioa** dakarte. Liberazioa eskatu ahal izango dute euren lanpostuari dagokien euskara maila (egiaztatua ala ez) oraindik lortu ez duten pertsonak. Horrela izanik, gutxienez **B1 maila gainditua** (egiaztatua ala ez) dutenek eta **aurreko ikasturtean euskara ikasten eta aprobetxamendu egokia** izan dutenek (ikus atal hau: 4. IKASTAROEN APROBETXAMENDUA) bi motatako ikastaro trinkoak eskatu ahal izango dituzte:

- ❖ Euskaltegian (erregimen irekian), 8:00-14:00 ordutegian.
- ❖ Barnetegian. Barnetegi-egonaldiak Zornotzako Barnetegian (Amorebieta-Etxano) edo Maizpiden (Lazkao) egiten dira. Egunean 6 eskola-ordu ematen dira eta gainontzeko denbora ekintza osagarrietarako da.

2018/2019 ikasturte honetan **36 liberazioko kopuru mugatua** eskainiko da. Aipatutako liberazioek **gehienez lauhileko iraupena** izango dute; beraz, Deialdi Osagarrian izango den liberazioen eskaintza Deialdi Orokor honetan emandako liberazio-baimenen arabera izango da.

Eskatzaileek hautatutako moduluetarako aukera baino ez dute izango. Eskatzaile batek 2 eta 5 orduko ikastaroak eskatu baditu, lehentasuna 5 ordukoak izango du eta hori ukatuz gero 2 ordukoa egiteko aukera aztertuko da.

### 2.3. AUTOIKASKUNTZA IKASTAROA

Autoikaskuntza ikastaroa lanorduz kanpoko da eta gutxienez 190 orduko iraupena izan behar du. Ikasleek informatika programa baten bidez eta irakasle-tutore baten aholkularitzaz euskara ikasteko aukera malgua dute, eta aldiro-aldi, mintzamen-saioak eta tutoretza-saioak egiten dira aurrez aurre.

Ikastaro hau eskatzeko, beste ikastaro mota bat egiteko ezintasuna justifikatzen duen ez ohiko egoera bat dagoela (arrazoi pertsonalak ala zerbitzu beharrianak) behar bezala



egiaztatu behar da. Hala ere, programa horretarako aurreikusitako aurrekontuen barruan onartua izan beharko du.

## 2.4. UDAKO IKASTAROAK

Ikastaro hauen helburua ikasturtean ikasitakoa finkatzea da, ez hurrengo urratsa gainditzea. Hortaz, aurreko ikasturtean euskara-ikastaroetan ibili diren guztiek eska dezakete, ikastaro horiek diruz lagunduak izan zein ez. Dirulaguntzarik gabeko ikastaroetan parte hartu dutenek euskaltegiaren ziurtagiri bat erantsi beharko dute asistentzia egiaztatzeko.

Udako ikastaroak trinkoak izango dira -euskaltegian nahiz barnetegian-, uztailetik irailera bitartean egin ahalko dira eta horien iraupena ez da 90-100 eskola-ordu baino gutxiagokoa izango.

Urte berean ezin da udako ikastaro bat baino gehiago egin **lan ordutegian**, eta gehienez 2 asteko iraupena izango du. Aldi horretan **langileak ez du ordezkorik izango bere lanpostuan**. Horregatik, ikastaro hauetan parte hartu ahal izateko, dagokion **organo ala zerbitzuaren arduradunaren oniritzia derrigorrezkoa da**.

Horrez gain, **ikastaro hauek opor garaian ere egin daitezke**.

## 3. ESKABIDEAK BIDERATZEKO JARRAIBIDEAK

### 3.1. ESKABIDE ORRIA

Ikastaroetan parte hartu nahi dutenek "*Euskara-ikastaroetarako eskabide-orria*" (*I eranskina*) bete eta izapidetu behar dute bide hauetako batez baliatuz:

- Posta elektronikoa: [n-laskibar@euskadi.eus](mailto:n-laskibar@euskadi.eus)
- Zuzenean edo fax bidez Justizia Administrazioako Zuzendaritzan:  
**Justizia Administrazioako Zuzendaritza**                      Faxe 945 01 91 51  
Lan eta Justizia Saila  
Donostia-San Sebastian 1, 01010 Vitoria-Gasteiz
- Zuzenean Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako EATtan.

**Argibideetarako telefono zenbakia: 945 01 91 59.**

### 3.2. ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA

Eskabideak aurkezteko epea **2018ko maiatzaren 15etik 25era** izango da, biak barne. Egun horretatik aurrera ez da eskabiderik edo aldaketarik onartuko.

### 3.3. LEHENTASUN IRIZPIDEAK

174/2010 Dekretuari jarraituz, Justizia Administrazioako Zuzendaritzak aldiro-aldiro deitzen dituen euskara-ikastaroetara nortzuk joango diren erabakitzeko, irizpide hauek erabiliko dira, ondorengo lehentasunaren arabera antolatuta:

- 1) Bereiztutako dotazioa duten langileek eta beren kidegoari dagokion hizkuntza-eskakizuna egiaztatu gabe dutenak.



- 2) Lehenetasunezko zatitako organo, zerbitzu edo unitateetako langileak, horiek identifikatzen direnean.
- 3) Beren kidegoari dagokion hizkuntza-eskakizunetik hurbilen den euskara-maila duten langileak.
- 4) Euskararen erabilera sustatzeko programetan parte hartzen duten langileak.
- 5) Euskara-maila bera duten eskatzaileen artean, destinoko zentroan antzinasun handiena duen langileak.
- 6) Destinoko zentroan euskara-maila eta antzinasun berbera duten langileen artean, aurreko ekitaldietan eskaintako ikastaroetan aprobetxamendu onena izan duenari emango zaio lehenetasuna.
- 7) Aipatutako irizpideak nahiko ez badira, langile gazteenari emango zaio lehenetasuna.

### 3.4. BAIMEN KOPURUA

174/2010 Dekretuari jarraituz, euskara-ikastaroetara lanorduetan joateko baimen kopurua mugatua izango da. Hortaz, organo edo zerbitzu bereko **plantillaren %30ak** parte hartu ahalko du ikastaro horietan, nahiz eta Justizia Administrazioko Zuzendaritzak kopuru hori handitzeko ahalmena izango duen.

%30 hori neurtzeko, kokaleku desberdinetan dauden eta berezitutako zerbitzuak ematen dituzten organo-unitateetan, ehuneko unitate txiki horietako bakoitzean ezarriko da. Era berean, ehuneko aparte zenbatuko da lanorduetako 2 orduko eta 5 orduko moduluetan. Horrez gain, kontuan izango da organo judizial berean kidego bereko zenbat funtzionariori ematen zaion baimena, organoaren funtzionamendu ona bermatzeko asmoz.

### 3.5. MAILAKETA-PROBAK

Eskaerak aztertu ondoren, deialdi honen aurreko azken 6 hilabeteetan euskara-eskoletara joan ez diren guztiek euskarazko ezaguera-maila zehazteko mailaketa-proba egin beharko dute. Mailaketa-proba hauetara deitutako langileek ezinbestean aurkeztu beharko dira, euskara inoiz ikasi ez eta 1. urratsean hasteko daudenek izan ezik.

### 3.6. TALDEEN ANTOLAKETA

HABE Justizia Administrazioko langileekin taldeak antolatzen ahaleginduko da honako kasuetan:

- Goizeko lanorduetako 2 orduko ikastaroak (8:00-10:00) Bilbon, Donostian edo Gasteizen.
- Ikastaro trinkoak (5h) euskaltegian.

Taldea sortzen bada, ikastaroa lantokitik gertu dagoen euskaltegi batean izango da posible den neurrian. Justizia Administrazioko Zuzendaritzak eskola non izango duen jakinaraziko dio telefonoz interesdunari irailaren azken astean. Behin taldea esleitu denean, ez da aldaketarik onartuko, behar bezala arrazoitzen ez bada.

Talderik sortzen ez bada, Justizia Administrazioko Zuzendaritzak **matrikula-orria** posta elektronikoz bidaliko dio interesdunari, horrek egin duen eskaerari eta beharrezanean ondoen egokitzen zaion euskaltegia topa dezan.



### 3.7. MATRIKULA-ORRIA

Ikastarook HABEk homologatutako edozein euskalategi publiko edo pribatutan egin daitezke. Halaber, langileek euskalategiaren egutegira eta ordutegira moldatu beharko dute.

Komenigarria da matrikula-orria jaso behar dutenek matrikula-orri hori jaso aurretik euskalategia bilatzen hastea, lekurik gabe gera ez daitezen. **Ezinbestekoa izango da matrikula-orria euskalategian aurkeztea** ikastaroa hasten denerako.

Dena delakoarengatik eskatzaileak matrikula-orria erabiliko ez balu, Justizia Administrazioko Zuzendaritzara itzuli beharko luke lehenbailehen.

### 3.8. ERREKLAMAZIOAK

Deialdi honetan onartu eta baztertu direnen behin-behineko zerrenda argitaratzen denean, arrazoi bat edo beste dela baztertuak izan direnek **20 egun naturaleko epea** izango dute, argitaratze-dataren hurrengo egunetik zenbatzen hasita, erreklamazio-idazki bat aurkezteko Justizia Administrazioko Zuzendaritzan. Halaber, lanorduetan egiten diren ikastaroetatik baztertuak geratu direnak, erreklamazioak egiteko epe berean euskara ikastaroa lanorduetatik kanpo egiteko eskaera egin dezake.

### 3.9. EGUTEGIA

Ikasleak ikastaroa hasten den egunean bertan hasi behar du euskalategian. Oro har, ikastaroen egutegia honako hau izango da:

2 ordu	2018ko urriaren 1a - 2019ko maiatzaren 31
5 ordu	1. lauhilekoa: 2018ko urriaren 1a - 2019ko otsailaren 8a
	2. lauhilekoa: 2019ko otsailaren 11 - 2019ko ekainaren 21a

5 orduko ikastaroetara doan ikasleak euskalategiak erabakitako egutegia jarraitu beharko du zehatz-mehatz, nahiz eta berak lan egiten duen organoan jaieguna izan. Euskalategian eskolarik ez badago, ikasleak bere lantokira joan beharko du, egun bakar baterako izan arren.

Era berean, 2 orduko ikastaroa egiteko baimena duen ikasle bati beste lizentzia edo baimen bat izateko gertaera sortuko balitzaio, eta lizentzia edo baimen hori euskalategiko eskola-orduko bestekoa edo horien iraupenaren zati batekoa bada, lizentzia edo baimen hori amaitu bezain laster bere lantokira itzuli beharko du lizentzia edo baimen horrek ez hartutako denbora betetzeko ikasle horrek haren ohiko lanaldia amaitu arte.

## 4. IKASTAROEN APROBETXAMENDUA

Aprobetxamenduari dagokionez, deialdi bakoitzean kontuan izango dira aurreko ikasturteko datuak, baita ikasle bakoitzaren ikasketa-ibilbidea ere. Horren harira, honakoak izango dira aprobetxamendu ez egokiak:



- Aurreko ikasturteko asistentzia emandako ordu teorikoen %80 baino baxuagoa izatea 2 orduko moduluetan –baita autoikaskuntzan ere, informatika programa eta mintza-saioak kontuan hartuta– eta %90 baino baxuagoa izatea 5 orduko moduluetan.
- Ebaluazioan eta aprobetxamenduan honako baldintzak bete ez direnean:
  - Ebaluazio bakarreko ikasturtean ebaluazio hori gainditzea.
  - 2 ebaluazioko ikasturtean ebaluazio 1 gainditzea.
  - 3 ebaluazioko ikasturtean 2 ebaluazio gainditzea.

Euskaltegia lantokitzat hartuko da ondorio guztietarako. Beraz, lanorduetako ikastaroren baten dabilen ikasleak asistentzia- eta puntualtasun-hutsegite guztiak justifikatu beharko ditu bere organo judizialeko ala zerbitzuaren arduradunaren aurrean, lantokira huts egiten duen beste edozein kasutan bezalaxe, eta Justizia Administrazioko Zuzendaritzari jakinarazi (Euskara Zerbitzua). Ez dira asistentzia-hutsegite moduan hartuko Justizia Administrazioko Euskara Zerbitzuan behar bezala justifikaturiko gaixotasun-aldiak eta mediku kontsultak.

Liberazioa duen ikasleak asistentzia- eta puntualtasun-hutsegite guztiak Justizia Administrazioko Zuzendaritzako Euskara Zerbitzuari jakinarazi beharko dizkio.

#### 4.1. IKASTAROAN BERANDU HASTEA

Didaktika eta antolakuntza arrazoiak direla medio, ikaslea ikasturteko lehen egunean hasi beharko da klasean. Aparteko kasuetan, behar bezala justifikatutako egoeretan (medikuaren baja, amatasun-baja, adopzioa edo antzekoak), onartu egingo da ikasturtean beranduago hastera; **5 klase-egun 5 orduko ikastaroetan (liberazioak) eta 10 klase-egun gainerako ikastaroetan.**

Hauxe da berandu hasi ahal izateko baimena lortzeko prozedura:

- a) Ikasleak aldeztu aurretik jakinarazi beharko dio Justizia Administrazioko Zuzendaritzari (Euskara Zerbitzuari) ez dela ikasturte hasieran eskolan hasiko aurretik aipatutako arrazoiren bat tarteko.
- b) Ikaslea eskolan hasteko moduan dagoenean, bere eskolatzea eskatu beharko dio Justizia Administrazioko Zuzendaritzari (Euskara Zerbitzuari).

Ondorioz, adierazitako epeak igarotakoan klasera hasi ez diren langileen eskaerei baja emango zaie.

#### 5. IKASTAROA BEHIN BETIKO UZTEA

Ikastaroa hasi ondoren, ikasleak ikastaroa behin betiko utzi nahi duenean, 10 egun natural izango ditu “*Jakinarazpena: Euskara-ikastaroak uztea*” (II eranskina) agiriaren bitartez Justizia Administrazioko Zuzendaritzari (Euskara Zerbitzua) jakinarazteko.

Aurreko ikasturtean Zuzendaritza honen iritziz behar bezala arrazoitu gabe 2 zein 5 orduko euskara-ikastaroa utzi egin dutenek ezin izango dute lanorduetako ikastaroetan parte hartu; lanorduz kanpoko ikastaroetan parte hartzeko aukera baino ez dute izango.

Ikastaroa ez dela egingo edota utzi egingo dela ez jakinaraztea ala ezarritako epea amaitu ondoren jakinaraztea hurrengo ikasturterako eskaera ukatzeko arrazoi izango dira.



## 6. LANTOKI ALDAKETA

Funtzionarioaren kargu-uztea gertatzen bada, Justizia Administrazioako Zuzendaritzari (Euskara Zerbitzuari) jakinarazi beharko dio. Lanean ez dagoen bitartean baimendutako ikastaroa egiten jarraitu ahal izango du. Baina, Justizia Administrazioan berrito lanean hasten bada, Justizia Administrazioako Euskara Zerbitzuari jakinarazi beharko dio; izan ere, euskara ikasteko baimena berrito aztertu behar da, ikastaroa, egoera berria eta deialdiko irizpideak kontuan hartuta.

Nolanahi ere, langileak lanpostu berrian izan lezakeen ikastarorako aukera ezingo du gauzatu harik eta Justizia Administrazioako Zuzendaritzak (Euskara Zerbitzuak) ikastaroa onartu eta jakinarazi arte.

## 7. ORDUEN KONPENTSAZIOA

Bi orduko ikastaroetara lanorduetan doazenek balio bereko ordu-konpentsazioa izango dute, ordutegi malguaz baliatuz. Lan-ordutegia 7:30etik 17:00etara bitartekoa da. Horri lotuta, eguneroko benetako lanaldia bete behar da, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioako Funtzionarioak Euskal Administrazio Orokorreko Funtzionarioekin nola parekatu arautzen duen akordioaren 30. artikuluan ezartzen diren irizpideen arabera.

Ikastaroetara lanorduz kanpo doazenek (17:00etatik aurrera) bestelako ordu-konpentsazioa izango dute honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- Ikastaroek astean gutxienez 8 eskola-orduko trinkotasuna izan behar dute eta HABEK homologatutako euskaltegietan egin behar dira.
- Ikastaro horietan gutxienezko asistentzia bete behar da, 4. IKASTAROEN APROBETXAMENDUA ataleko irizpideen arabera.

Konpentsazioa 5 egunekoa izango da ikasturte osoari dagokionean eta 2 egunekoa lauhilekoari dagokionean. Konpentsazioa uztailetik aurrera eskatu ahal izango da.

## 8. IKASTAROEN FINANTZAKETA

Lanorduetako zein lanorduz kanpoko ikastaroa egingo duen ikasleak matrikula-gastu guztia ordainduta izango du. Hortaz, ez du euskaltegian inolako ordainketarik egin beharko. Era berean, Justizia Administrazioako Zuzendaritzak bere gain hartuko ditu barnetegiko matrikula- eta egonaldi-gastuak.

**Autoikaskuntza ikastaroen kasuan**, Justizia Administrazioako Zuzendaritzak **kostuaren %70a** ordainduko du eta gainerako **%30a ikasleak** berak ordaindu beharko du matrikula egitean. Hala ere, ikasturte amaieran aprobetxamendua ona izan bada, ordaindutako dirua itzuliko zaio. Horretarako interesdunak eskaera bat bidali beharko du idatziz, ordainagiriarekin batera, Justizia Administrazioako Zuzendaritzara (Euskara Zerbitzua) ikastaroa amaitu eta hiru hilabeteko epean.

Ez dira ordainduko bestelako gastu hauek: joan-etorriak, material didaktikoa etab.